EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98
Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98
Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

# Bestelako Xedapenak

## OSASUN SAILA

### 752

44/2008 EBAZPENA, urtarrilaren 9koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bitartez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko entitate publikoari atxikiak dauden zerbitzu sanitarioetako erakunde publikoei bilera zientifikoak egin ditzaten laguntzak emateko deialdia egiten da.

Osasun-arloan egin beharreko ikerketa- eta prestakuntza-lana zabala eta anitza da oso, eta horrexegatik, beharrezkoa da zientzia-arloko informazioa eta ezagupenak elkarrekin trukatzea, bai eta harreman hori garatzea eta hobetzea ere. Horretarako, bilkura zientifikoak antolatzea oso bide egokia da.

Osasun Sailak du bere gain hartuta, Osasun Antolamenduko Zuzendaritzaren bitartez, osasun-arloko ikerketa eta langileen prestakuntza sustatzeko eskumena; betebehar hori hezurmamitzeko, dagokion aurrekontu-atala du prest, hirugarrenei egindako transferentzien bitartez, kongresu eta bilera zientifikoak antolatzen laguntzeko. Diru-transferentzia horiek egiteko prozedura ahalik eta eragingarriena izan dadin, Osakidetzak kudeatu izan ditu orain arte, Osasun Saila lagun duela, ente publikoari atxikitako osasun-zentroei eman beharreko laguntzak.

2008. urtean ere, ildo berari jarraituz, hauxe

EBATZI DU:

*Lehenengoa.*– Xedea.

Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeei zuzendutako diru-laguntzak arautu eta horietarako

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 752

RESOLUCIÓN 44/2008, de 9 de enero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se convocan ayudas para la organización de reuniones científicas a las organizaciones públicas de servicios sanitarios dependientes del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Dentro del amplio y múltiple campo de la formación y la investigación sanitaria es necesario desarrollar y mejorar el intercambio de información y conocimientos científicos mediante la organización de las oportunas reuniones científicas.

El Departamento de Sanidad, a través de la Dirección de Ordenación Sanitaria, tiene atribuida la competencia en materia de fomento de la formación del personal sanitario y de la investigación sanitaria y, como tal, dispone de la correspondiente asignación presupuestaria de transferencias a terceros para ayudas en la Organización de Congresos y Reuniones Científicas. Con objeto de hacer más operativo el procedimiento de ejecución de estas transferencias, Osakidetza en colaboración con el Departamento de Sanidad, ha venido gestionando la concesión de las ayudas a los centros pertenecientes al Ente Público.

Por ello siguiendo en esta línea, para el año 2008.

RESUELVE:

*Primero.*– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución la regulación y convocatoria de ayudas dirigidas a las organizaciones de ser-

deialdia egitea da ebazpen honen helburua. Euskal Autonomia Erkidegoan 2008. urtean egiten diren edo urte horretan antolatzen hasten diren osasun-jarduera zientifikoen prestakuntza- eta hedapen-jarduerak antolatzearen ondoriozko gastuak finantzatzeko izango dira laguntza hauek. Bi modalitate izango dira:

a) Bilkura zientifikoak antolatzea, hau da, kongresu, sinposium, jardunaldi, mintegi eta antzeko jarduerak antolatzea.

b) Ikastaroak antolatzea.

*Bigarrena.–* Baliabide ekonomikoak.

Baliabide ekonomikoen zenbatekoa 90.000,00 eurokoa izango da.

Laguntzetarako finkatutako guztizko kopuru hori aldatu ere egin liteke, eskatutako laguntzak guztira zenbatekoak diren ikusita, eta, Osakidetzak beste programa batzuk burututakoan diru-kopururik ahitu gabe geratuz gero, erabilgarri dagoen diruaren arabera.

*Hirugarrena.–* Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzen zenbatekoa zehazteko, sarrera eta gastuen aurrekontua bai eta, egonez gero, bestelako finantza-iturriak hartuko dira kontuan.

Emandako laguntzak ezingo du inolaz ere eskaerarekin aurkeztutako aurrekontuan dagoen defizita gainditu.

*Laugarrena.–* Laguntzen bateragarritasuna.

Diru-laguntza hauek bateragarri izango dira beste edozein eratako diru-laguntzekin. Helburu bererako guztira hartutako laguntza guztien diru-kopuru osoa handiagoa denean kostu osoa bera baino, ebazpen honen arabera emandako laguntzaren zenbatekoa ere murriztu egingo da, kostutik gora zenbat, horrenbeste.

Laguntza jasotzen duen erakunde onuradunak, ahalik eta lasterren, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Etengabeko Prestakuntza Programari xede bererako beste laguntzarik jaso duen jakinarazi beharko dio.

*Bosgarrena.–* Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

Eskabideak 2008ko maiatzaren 31 baino lehenago aurkeztu behar dira.

Ebazpen honetako eranskinetan dauden inprimaki normalizatuak bete beharko dira eskabideak egiteko eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari zuzendu beharko zaizkio. Horretarako helbidea honakoa izango da: «Etengabeko Prestakuntzako Programa», Araba kalea 45, 01006 posta-kodea, Vitoria-Gasteiz.

*Seigarrena.–* Eskabidearen hutsak zuzentzea.

Diru-laguntzen eskabideak behar bezala bete ez badira edo laguntza-modalitate bakoitzerako azaltzen diren agiriak erantsi ez badira, interesdunari hamar eguneko epearen barruan hutsak zuzen ditzala edo behar diren agiriak aurkez ditzala eskatuko zaio. Horrela egiten ez badu, bere eskabidea baliogabetutzat joko da.

vicios sanitarios de Osakidetza. Estas ayudas irán destinadas a financiar los gastos derivados de la organización de actividades formativas y de difusión de la actividad científica en salud que vayan a celebrarse, o cuya organización comience durante el año 2008, en la Comunidad Autónoma del País Vasco con dos modalidades:

a) Organización de reuniones científicas, entendiendo por tales los congresos, simposios, jornadas, seminarios y otras actividades análogas.

b) Organización de cursos.

*Segundo.–*Recursos económicos.

El importe de los recursos económicos será de 90.000,00 euros.

Dicho importe global podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función las disponibilidades económicas no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas de Osakidetza.

*Tercero.–* Cuantía de las ayudas.

Para determinar la cuantía de las ayudas, se atenderá al presupuesto de ingresos y gastos, y a la existencia de otras fuentes de financiación.

La ayuda concedida no podrá superar, en ningún caso, el déficit que conste en el presupuesto presentado con la solicitud.

*Cuarto.–* Compatibilidad de las ayudas.

La concesión de estas ayudas será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda. En el caso de que el importe total de las obtenidas de las diferentes entidades sea superior, para un mismo fin, a su coste total, se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso el importe de ayuda concedida de acuerdo con la presente Resolución.

La entidad beneficiaria de la ayuda deberá comunicar, a la mayor brevedad, al Programa de Formación Continuada de la Dirección General de Osakidetza, la obtención de cualquier otra ayuda para el mismo fin.

*Quinto.–* Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

La presentación de solicitudes deberá realizarse antes del 31 de mayo de 2008.

Las solicitudes cumplimentadas en los impresos normalizados que figuran como anexos de esta Resolución, se dirigirán y remitirán a la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud (Programa de Formación Continuada) c/ Álava, n.º 45, CP 01006, de Vitoria-Gasteiz.

*Sexto.–* Subsanación de los defectos de la solicitud.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación que para cada modalidad de ayuda se indica, se requerirá a la entidad solicitante para que en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que

Administrazioak, bere aldetik, eskabideari buruzko ebazpena eman eta jakinarazi beharko dio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

*Zazpigarrena.–* Eskabideen ebaluazioa.

Osasun-erakundeko zuzendari nagusiak batzorde bat izendatuko du berariaz aurkeztutako eskabide guztiak azter eta balora ditzan; eskabide-balorazio hori ekainean egingo du batzordeak.

Batzorde horretan honakoak arituko dira: Zuzendaritza Nagusiaren ordezkari bat, Lege Aholkularitzako idazkari bat, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako hiru kide, Giza Baliabideetako Zuzendaritzako kide bat eta Ekonomia eta Finantza Zuzendaritzako kide bat. Batzordeko kideei egingo zaien deialdia, esparru bakoitzean jasotako espediente-kopuruaren arabera egingo da.

Batzordeak, laguntza-modalitate bakoitzerako aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatuz, formulatu diren eskabideak ebaluatu eta dagokion ebazpen-proposamena aurkeztuko dio zuzendari nagusiari.

*Zortzigarrena.–* Ebazpena.

Eskabideak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebatziko ditu, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako ebazpenaren bidez, horretarako izendatutako batzordearen proposamenaren arabera.

Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko zaizkie interesdun erakundeei. Argitalpena diru-laguntzak ematen diren egunean hasi eta hilabeteko epean egin beharko da.

Aipatutako epea pasa eta interesdunei dagokien ebazpena ez bazaie jakinarazi, interesdunek beren eskabidea ez dela aintzat hartu ulertu beharko dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

*Bederatzigarrena.–* Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Memoria, bilera edo ikastaroaren bidez lortu nahi diren helburuak jasotzekoa.

b) Curriculum vitaea, bilera edo ikastaroa antolatzeko ardura duenarena.

c) Aurre-programa, ikastaroak biltzen dituen jardun zientifikoak edo edukiak ahalik eta gehien zehaztuta.

d) Hizlari edo irakasle nagusien izena, beren ibilbide zientifikoa eta profesionala labur azalduta.

si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida en su petición. La Administración quedará obligada a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Séptimo.–* Evaluación de las solicitudes.

La valoración de las solicitudes, que se realizarán mediante una comisión de valoración nombrada a tal efecto por la Directora General del Ente, se llevará a cabo en el mes de junio.

Dicha comisión estará formada por un representante de la Dirección General, un secretario perteneciente a Asesoría Jurídica, tres miembros de la División de Asistencia Sanitaria, un miembro de la División de Recursos Humanos y un miembro de la División Económico-Financiera. La convocatoria a los diferentes miembros se realizará en función de la demanda de expedientes en cada área.

La Comisión, en aplicación de los criterios de valoración previstos para cada modalidad de ayuda, evaluará las solicitudes formuladas y elevará a la Directora General la correspondiente propuesta de resolución.

*Octavo.–* Resolución.

Las solicitudes de ayudas serán resueltas por la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, mediante resolución que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, a propuesta de la Comisión de Valoración nombrada a tal efecto.

Las Resoluciones serán notificadas a las entidades interesadas, mediante su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, dentro del mes siguiente a la concesión de los mismos.

Si transcurrido dicho plazo no se ha notificado la correspondiente Resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud a los efectos de lo establecido en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Noveno.–* Solicitud y documentación a presentar.

A la solicitud se acompañará la siguiente documentación:

a) Memoria en la que se recojan los objetivos que han llevado a organizar la reunión o curso.

b) Curriculum Vitae del responsable de la organización de la reunión o curso.

c) Programa preliminar, con una descripción detallada posible de los actos científicos o contenido del curso.

d) Nombre de los ponentes o docentes principales, con una breve especificación de su trayectoria científica y profesional.

e) Diru-sarreren eta gastuen aurrekontu zehaztua; kanpoan utzi behar dira gizarte-ekitaldiei dagozkien gastu guztiak.

f) Zinpeko aitorpena, xede bererako urte honetan eskatu eta jasotako bestelako finantzaketa-iturriei buruzko zinpeko aitorpena, halakorik baldin bada.

g) Bileran landutako jardueren argitalpena edo hedapena, halakorik baldin badago.

Ikastaroa antolatzeko laguntza eskatzen bada, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

– Honako hauek azalduz memoria: asistentzia-kontrolerako sistema, jardueraren egokitasuna zein beharrei erantzuten dien eta behar hauek nola antzeman diren adieraziz, ikastaroaren helburu orokorrak eta berariazkoak, egutegia, giza baliabideak irakasle nagusien izena eta posizioarekin, baliabide materialak, ikasleak aukeratzeko mekanismoak, irakasteko metodologia, eta azken ebaluazio-sistemak.

– Osasun Sailak jarduera kreditatzeko emandako egiaztagiriaren kopia.

– Hala badagokio, ondoren emango den diploma edo ziurtagiria nolakoa izango den.

*Hamargarrena.*– Esleitzeko irizpideak.

Diru-laguntzak esleitzerakoan, honako hauek hartuko dira kontuan:

1.– Bilkura zientifikoei dagokienez:

a) Aurkeztutako agiriak oinarri hartuta jarduerak duen interes zientifikoa: 60 puntu gehienez.

b) Bileraren helburuak zenbateraino datozen bat, Osasun Planean eta indarrean dagoen Plan Estrategikoan adierazita dauden Osasun Sailaren eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren arlo nagusiekin: 40 puntu gehienez.

1.– Ikastaroei dagokienez:

| | |
|---|---|
| Ikastaroaren helburuak: | 15 puntu gehienez. |
| Antolamendua eta logistika: | 15 puntu gehienez. |
| Ikastaroaren egokitasuna: | 30 puntu gehienez. |
| Irakasteko metodologia: | 20 puntu gehienez. |
| Ebaluazioa: | 20 puntu gehienez. |

Ebazpen honetan azaldutako baldintza guztiak beteta ere, horrek ez du esan nahi besterik gabe laguntza jasotzeko eskubidea lortu denik.

*Hamaikagarrena.*– Ordainketa.

Esleitutako diru-laguntzari dagokion kopurua, banku-transferentziaren bitartez, dena delako zentroaren aurrekontuan sartuko da.

Diru-laguntza jasotzen duen osasun-zentroak honako hauek entregatu beharko dizkio Zuzendaritza Nagusiari (Etengabeko Prestakuntza-Programa), bilera amaitu baino lau hilabete lehenagotik:

e) Presupuesto detallado de ingresos y gastos, del que se excluirán todos los gastos referentes a actividades sociales.

f) Declaración jurada sobre otras fuentes de financiación solicitadas y, en su caso, concedidas durante el presente año para el mismo fin.

g) Posible publicación o difusión de las actividades de la reunión.

En el caso de petición de ayuda para la organización de un curso se adjuntará así mismo:

– Memoria explicando sistema de control de asistencia, pertinencia de la actividad indicando las necesidades a las que responde y cómo han sido detectadas, objetivos generales y específicos del curso, calendario, recursos humanos con el nombre y posición de los docentes principales, recursos materiales, mecanismos de selección del alumnado, metodología docente, y sistemas de evaluación final.

– Copia, en su caso, del certificado de acreditación de la actividad expedido por el Departamento de sanidad.

– Diploma o certificado a expedir, en su caso.

*Décimo.*–Criterios de adjudicación.

La adjudicación de las ayudas se efectuará teniendo en cuenta:

1.– Para el caso de las Reuniones científicas.

a) Interés científico del acto con base en la documentación presentada: máximo 60 puntos.

b) Coincidencia de los objetivos de la reunión con las áreas prioritarias del Departamento de Sanidad y Osakidetza–Servicio vasco de salud, expresadas en los objetivos del Plan de Salud, y del Plan Estratégico vigente: máximo 40 puntos.

1.– Para el caso de los Cursos.

| | |
|---|---|
| Objetivos del Curso: | Máximo 15 puntos. |
| Organización y logística: | Máximo 15 puntos. |
| Pertinencia del Curso: | Máximo 30 puntos. |
| Metodología docente: | Máximo 20 puntos. |
| Evaluación: | Máximo 20 puntos. |

El cumplimiento de todos los requisitos mencionados en esta Resolución no otorga por sí solo derecho a la adjudicación de la ayuda.

*Undécimo.*– Pago.

El importe de la ayuda concedida se situará mediante la transferencia oportuna en el presupuesto del centro correspondiente.

El centro que reciba la ayuda deberá entregar a la Dirección General (Programa de Formación Continuada), antes de los cuatro meses de la finalización de la reunión:

a) Diruz lagundutako bilerak dakartzan guztizko gastuen balantze ekonomikoa.

b) Azken txostena, balantze zientifikoa eginda, eta bileraren aktak edo ikastaroko materialak jasota.

Zentrorako erabilgarri utzitako kreditu osoa erabiltzen ez bada 2008ko abenduaren 31rako, galdu egingo da diru hori.

***Hamabigarrena.–*** Diru-laguntza emateko hasierako baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako gorabehera edo egoeretatik edozein aldatzen bada gerora, betiere, laguntzaren xedea beteta dagoela, eta, hala dagokionean, beste edozein erakunde publiko zein pribatutatik beste laguntzarik jasotzen bada batera, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horri lotuta, Osakidetzako zuzendari nagusiak dagokion kitapen-ebazpena emango du esleitutako laguntzen kopuruak berriz doitu eta egokitzeko.

***Hamahirugarrena.–*** Arauak ez betetzea.

Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera, onuradunak ez baditu ebazpen honetan ezarritako xedeak eta baldintzak betetzen, laguntza jasotzeko eskubidea gal liteke, eta, hala dagokionean, onuradunaren aurka egin litezkeen gainerako jardunez gainera, jaso duen diru-kopurua ere itzuli egin beharko du, dirua jaso zuenetik sortutako interes eta guzti.

Aipatutako diru-kopuru horiek denak diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

AZKEN XEDAPENA

***Lehenengoa.–*** Ebazpen honetan aurrez zehaztu ez diren gaiak direla-eta, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa beteko da, alegia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean ezarritakoa.

***Bigarrena.–*** Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio-kontseiluari (Araba kalea 45, 01006, Vitoria-Gasteiz), ebazpen hau EHAAn argitaratzen den egunetik hasita hilabeteko epearen barruan, hala xedatzen baita azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. eta hurrengo artikuluetan. Hala ere, bidezko deritzoten beste edozein errekurtso aurkez dezakete interesdunek.

***Hirugarrena.–*** Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 9a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko
zuzendari nagusia,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

a) Balance económico de los gastos totales de la reunión subvencionada.

b) Memoria final con balance científico, incluyendo Actas de la reunión o material del curso.

En caso de no utilizar la totalidad del crédito dispuesto para el centro al 31 de diciembre de 2008, éste se perderá.

***Duodécimo.–*** Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de la ayuda. A estos efectos, por la Dirección General de Osakidetza se dictará la oportuna Resolución de Liquidación, en la que se reajustarán los importes de las ayudas concedidas.

***Decimotercero.–*** Incumplimientos.

De acuerdo con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, en el supuesto de que el beneficiario incumpliere los requisitos y los fines previstos en la presente Resolución, se podrá declararla pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso la obligación de reintegrar las cantidades ya percibidas con sus intereses legales, sin perjuicio de las demás acciones que se procedan.

Las cantidades referidas tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

DISPOSICIÓN FINAL

***Primero.–*** En todo lo no previsto en la presente Resolución será de aplicación lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Segundo.–*** Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer un recurso de alzada ante el Consejo de Administración del Ente Público Osakidetza (c/ Álava 45, CP 01006, Vitoria-Gasteiz) en el plazo de un mes a partir de su publicación en el BOPV, de acuerdo con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por Ley 4/1999 de 23 de enero, sin perjuicio de que puedan ejercer cualquier otro que estimen oportuno.

***Tercero.–*** La presente Resolución tendrá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de enero de 2008.

La Directora General
de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

# I. ERANSKINA

## BILERA ANTOLAKETA (ikastaroak ez)

Eskaera egin duen zentroa: ..................................................................................................................................................
Unitate edo zerbitzu antolatzailea: ......................................................................................................................................

BILERARI BURUZKO DATUAK

Bileraren izen ofiziala: ..........................................................................................................................................................

Esparru geografikoa (gurutze batez adierazi):

| □ | □ | □ | □ |
|---|---|---|---|
| Lurralde historikoa | EAE | Estatu espainiarra | Nazioartekoa |

Non izango den:. ..................................................................................................................................................................
Helbidea: ...............................................................................................................................................................................
...............................................................................................................................................................................................
Herria: ..................................................................................................................................................................................

Hasiera-eguna: ..............................................................Amaiera-eguna: .........................................................................
Jardunaren iraupena (ordu-kopurua): ...................................................................................................................................
Partaide kopurua, g.g.b.: ......................................................................................................................................................
Erakunde antolatzaileak: ......................................................................................................................................................
...............................................................................................................................................................................................
Antolaketa-arduradunaren izena: .........................................................................................................................................

Aurrekontua guztira. Gastuak: ..................................................... Diru-sarrerak, aurreikusitakoak: ...............................................
Inskripzio-kuota: ..................................................................................................................................................................
Eskatutako beste laguntza batzuk:
Erakundea: .............................................................................Kopurua: .........................................................................

Deialdi honetan eskatutako diru-kopurua: ...........................................................................................................................

Zentroko gerentearen sinadura

Eskatzailearen sinadura

Izena:

Izena:

* Beharrezkoa da hemengo datu-atal guztiak betetzea.

BILERA ZIENTIFIKOAK ANTOLATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

[ ] Osasun-arloko helburuak, bileraren bidez lortu nahi direnak.
[ ] Bilera antolatu duen arduradunaren Curriculum Vitae-a.
[ ] Aurreko programa, jardun zientifikoak ongi zehaztuta daudela bertan.
[ ] Hizlari nagusien izena eta maila.
[ ] Irakaskuntza/Ikerkuntza Batzordearen onarpen-egiaztagiria (halakorik badago).
[ ] Diru-sarreren eta gastuen aurrekontua, kontzeptuka zehaztua.
[ ] Zinpeko aitorpena, bilera antolatzeko erabilitako beste finantzaketa-iturri batzuei buruzkoa.
[ ] Bileran landutako jardunen hedapena edo argitalpena, halakorik baldin badago.

# II. ERANSKINA

## IKASTARO ANTOLAKETA

Eskaera egin duen zentroa: ..........................................................................................................................................................
Unitate edo zerbitzu antolatzailea: ..............................................................................................................................................

## IKASTAROARI BURUZKO DATUAK

Ikastaroaren izen ofiziala: ...........................................................................................................................................................
...................................................................................................................................................................................................
Non izango den:. ............................................................................................................................................................................
Helbidea: ......................................................................................................................................................................................
...................................................................................................................................................................................................
Herria: ..........................................................................................................................................................................................

Hasiera-eguna: ............................................................................................................ Amaiera-eguna: ................................................
Ordu-kopurua: Guztira .................................................. Teorikoak: .............................. Praktikoak: ............................................
Erakunde antolatzailea ...................................................................................................................................................................

Ikastaro-arduradunaren izena: ......................................................................................................................................................
...................................................................................................................................................................................................
Irakasleak: ....................................................................................................................................................................................
...................................................................................................................................................................................................
Ikastaroa zein kolektibori zuzenduta dagoen: ..............................................................................................................................
...................................................................................................................................................................................................
Ikasle-kopurua (aurreikusitakoa): ..................................................................................................................................................
Aurrekontua guztira: Gastuak: ....................................................................................Diru-sarrerak ..............................................
Inskripzio-kuota: ...........................................................................................................................................................................
Eskatutako beste laguntza batzuk:
Erakundea: ...................................................................................................................... Kopurua: ..............................................

| Deialdi honetan eskatutako diru-kopurua: ..................................................................................................................... |
|---|

Zentroko gerentearen sinadura

Izena:

Eskatzailearen sinadura

Izena:

* Beharrezkoa da galdera guztiei erantzutea

## IKASTAROAK ANTOLATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

[ ] Osasun-arloko helburuak, bileraren bidez lortu nahi direnak.
[ ] Bilera antolatu duen arduradunaren Curriculum Vitae-a.
[ ] Ikastaroaren programa xehakatua.
[ ] Irakasle nagusien izena eta maila.
[ ] Irakaskuntza Batzordearen onarpen-egiaztagiria (halakorik badago).
[ ] Diru-sarreren eta gastuen aurrekontua, kontzeptuka zehaztua.
[ ] Zinpeko aitorpena, ikastaroa antolatzeko erabilitako beste finantzaketa-iturri batzuei buruzkoa.
[ ] Ikasleak aukeratzeko sistemak.
[ ] Bidezko erakunderen batek ikastaroa kreditatzeko emandako egiaztagiriaren kopia
[ ] Ematekoa den diploma edo ziurtagiria.

*ANEXO I*

*ORGANIZACIÓN DE REUNIONES (excluidos cursos)*

*Centro solicitante:* ..........................................................................................................
*Unidad o Servicio:* ..........................................................................................................

*DATOS DE LA REUNIÓN*

*Nombre Oficial de la Reunión:* ..........................................................................................................
..........................................................................................................
*Ámbito geográfico (señalar con una cruz):*

☐ *Territorio Histórico* ☐ *CAPV* ☐ *Estado Español* ☐ *Internacional*

*Lugar de celebración:* ..........................................................................................................
*Dirección:* ..........................................................................................................
..........................................................................................................
*Localidad:* ..........................................................................................................
..........................................................................................................
*Fechas: Comienzo:* ..................................................*Finalización:* ..................................................
*Duración del acto (n.º de horas):* ..........................................................................................................
*N.º estimado de participantes:* ..........................................................................................................
*Entidades organizadoras:* ..........................................................................................................
..........................................................................................................
*Nombre del responsable de la organización:* ..........................................................................................................
..........................................................................................................
*Presupuesto total: Gastos:* .................................................. *Ingresos previstos:* ..................................................
*Cuota de inscripción:* ..........................................................................................................
*Otras subvenciones solicitadas*
*Entidad:* .................................................. *Cuantía:* ..................................................

*Cantidad solicitada a esta convocatoria:* ..........................................................................................................

*Firma del Gerente del Centro* *Firma del solicitante*

*Nombre:* *Nombre:*

** Es obligatorio rellenar cada uno de los apartados.*

*DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR PARA ORGANIZACIÓN DE REUNIONES CIENTÍFICAS:*

[ ] *Objetivos sanitarios que han llevado a organizar la reunión.*
[ ] *Curriculum Vitae del responsable de la organización de la reunión.*
[ ] *Programa preliminar con descripción detallada de los actos científicos.*
[ ] *Nombre y posición de los ponentes principales.*
[ ] *Certificado de aprobación de la Comisión de Docencia/Investigación, si existe.*
[ ] *Presupuesto de ingresos y gastos detallados por conceptos.*
[ ] *Declaración jurada sobre otras fuentes de financiación para la organización de la reunión.*
[ ] *Posible publicación o difusión de las actividades de la reunión.*

*ANEXO II*

*ORGANIZACIÓN DE CURSOS*

*Centro solicitante:* ..........
*Unidad o Servicio:*..........

*DATOS DEL CURSO*

*Nombre oficial del curso:*..........
..........
*Lugar de celebración:* ..........
*Dirección:*..........
..........
*Localidad:* ..........
..........
*Fechas: Comienzo:* .......... *Finalización:* ..........
*N.º de horas: Total:* .......... *Teóricas:* .......... *Prácticas:* ..........
*Entidad organizadora* ..........
..........
*Nombre del responsable del curso:* ..........
..........
*Docentes:* ..........
..........
*Colectivo al que va dirigido el curso:* ..........
..........
*N.º previsto de alumnos:* ..........
*Presupuesto total: Gastos:* ..........*Ingresos:* ..........
*Cuota de inscripción:* ..........
*Otras subvenciones solicitadas*
*Entidad:* .......... *Cuantía:* ..........

*Cantidad solicitada a esta convocatoria:*..........

*Firma del Gerente del Centro* *Firma del solicitante*

*Nombre* *Nombre:*

** Es obligatorio rellenar cada apartado.*

*DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR PARA LA ORGANIZACIÓN DE CURSOS:*

[ ] *Objetivos sanitarios que han llevado a organizar la reunión.*
[ ] *Curriculum Vitae del responsable de la organización de la reunión.*
[ ] *Programa detallado del curso.*
[ ] *Nombre y posición de los docentes principales.*
[ ] *Certificado de aprobación de la Comisión de Docencia, si existe.*
[ ] *Presupuesto de ingresos y gastos detallados por conceptos.*
[ ] *Declaración jurada sobre otras fuentes de financiación para la organización del curso.*
[ ] *Mecanismos de selección de los alumnos.*
[ ] *Copia del certificado de acreditación del curso expedido por alguno de los Organismos pertinentes.*
[ ] *Diploma o certificado expedido.*